

Abarak

MIKEL GARCIA

Mikel Moore bat behar du Euskal Herriak

Sicko. Zuzendaria: Michael Moore.
Dokumentala. 123 minutu. AEB, 2007.

OSAKIDETZAKO trapu zikinak azaleratuko dituen dokumentalgilea behar dugu, itxaron gelan dauden gaixo aspertuak elkarrizketatuz, paziente bakoitzarekin denbora gehiago eskatzen duten 10 Minutu Plataformako medikuekin hitz eginez, ebakuntzaren zain itxaron zerrenda amaigabeetan daudenen inguruan dokumentatuz, benetan premia izan duenean osasun pribatura jo behar izan duen jendeari galdetuz.

Dena den, kontsolamendua ere bada ikustea datoren hil bukaeran Hego Euskal Herrian estreinatuko den *Sicko* filma, Michael Moore polemikoaren azkena. Izan ere, beldurgarria da AEBetako osasun sistemaz eskaintzen duen irudia. Aseguru etxe handien esku dago estatubatuarren osasuna –zehazkiago aseguru dutenena, 50 milioi biztanle osasun aseguru gabe bizi baita–, konpainien azpijokoen esku: dolar gehiago irabazteko aseguruak hiltzen uzten dituzten

medikuak, diru truke txintik esaten ez duten politikariak, eta kasu lazgarriak pairatu behar dituzten gaixoak. Doako osasun unibertsalari beldurra dio oraindik estatubatuar askok, agintariak ondo jakin baitute sozializazioaren mamua zabaltzen, mediku pribatuek sei zifrako soldatak kobratzen jarrai dezaten.


Hainbat taldek “AEBen etsai” izendatu duten Michael Moore zuzendariak hautsak harrotu ditu berriz ere. *Bowling for Columbine* (arma industriaz) eta *Fahrenheit 9/11* (Irakeko gudaz) ezagunetan egin zuen antzera, Bushen administrazioa zirikatzea lortu du beste behin, eta probokazioaren bidez, normaltzat ematen diren ereduak zalantzan jartzea. Ikusi beharko da Obamaren Gobernuak kritikarako hainbeste aukera ematen duen.

Baina ez gaitezen galdu, berriro diot: Moore euskalduna behar dugu guk, elkarte gastronomikoetan arakatu duena, hezkuntza sisteman, ogasunean, kultur politikan, banketxeetan, inertziaren indarrez ontzat ditugun moldeak hankaz gora jartzeko.



Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefona:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

argia